

## TRAMITAZIOAK/ LIZENTZIA ESKABIDEAK

### OBRA HANDIKO LIZENTZIA ETA LEHEN ERABILERARAKO LIZENTZIA ESKAERA

#### AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

##### 1. OBRA-LIZENTZIA:

*Eskabide orokorra behar bezala beteta*

- *Harremanetarako telefono-zenbakia jarri.*
- *Obra zein lurzatitan eta poligonotan egin nahi den adierazi.*
- *Proiektua etxea birgaitzeko bada eta Sakanako Mankomunitatearen diru-laguntza eskatu bada, eskabidean jakinarazi beharko da. Kasu horretan, espedientea ezin izango da Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuan izapidetu, aldez aurretiko kalifikazioa eskuratzeko. Sakanako Mankomunitateak espedientea ebazten duen momentuan aurkeztu beharko da behin-behineko kalifikazioa.*

*Exekuzio-proiektua, egin nahi diren obrak zehaztuko dituen. Proiektua teknikari gaituak idatzi eta unean uneko elkargo profesionalak ikus-onetsi beharko du. (ale 1 paperezko euskarrian eta ale 1 euskarri digitalean)*

*Segurtasun eta osasun azterketa edo segurtasunari eta osasunari buruzko oinarrizko azterketa, urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuarekin bat.*

*Obrak egingo dituen eraikitzaile-edukitzailea eraikitzaileen erregistroan inskribatuta dagoela justifikatzen duen agiria. Ondorio horietarako, erregistro hori Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamenduak mantenduko du 6. artikuluko honetako 3. puntuaren arabera*

*Ur kontagailua instalatzeagatik Udalarari ordaindu zaiola egiaztatzen duen agiria.*

*Eraikin berri baten kasuan, proiektuarekin batera, eraikinaren efizientzia energetikoari buruzko ziurtagiriaren erregistroko inskripzioa aurkeztu beharko da, betiere 199/2013 Foru Aginduaren 2. artikuluko 2. puntuan ezarritakoari jarraikiz.*

*Eraikineko estatistika edo eraikuntza buletina behar bezala beteta:*

[https://www.fomento.gob.es/recursos\\_mfom/pdf/7629E2BF-D4D6-4E19-BA61-ECC8E5C6D5EC/124679/CE1.pdf](https://www.fomento.gob.es/recursos_mfom/pdf/7629E2BF-D4D6-4E19-BA61-ECC8E5C6D5EC/124679/CE1.pdf)

##### 2. LEHEN ERABILERARAKO LIZENTZIA:

*Eskabide orokorra behar bezala beteta. Harremanetarako telefonoa jarri behar da bertan.*

*Obra amaierako dokumentazioa, tekniko eskudunak egina eta kasuan kasuko elkargo profesionalak ikus-onetsia. Hartan, besteak beste, lizentziaren baldintzak betetzen direla frogatuko da. (2 ale)*

*Ur-zerbitzuan alta eskatu dela egiaztatzen duen agiria.*

*Lizentziaren xede diren etxebizitzaren jabeen zerrenda, baldin eta obra sustatzaile baten bidez egin bada.*

*Fidantza itzultzeko eskabidea, 23/2011 Foru Dekretuari jarraikiz, eta, horrekin batera, hondakinak behar bezala kudeatu direla ziurtatzen duen egiaztagirialfaktura, Foru Dekretuaren 2 D Eranskinari jarraikiz betiere. Fidantzaren itzulketa partzialak eskatzen ahalko dira. Horretarako, behar diren egiaztagiri partzialak edo emate fakturak aurkeztu beharko dira, kudeatzaile eskudunak emanak.*

*Gogorarazten da obra berriaren eta jabetza horizontalaren deklarazioaren idazkiak aurkeztu beharko direla udaletxean.*